



Programa

**MINTEGIAK. GIZARTE-KONPROMISOA IKERKETA
AKADEMIKOKO LANETAN**

Proiektua. Euskal-kolonbiar artikulazioa, aldizkako pandemien garaian beste hezkuntza posible bat esperimentatzeko, ikasteko eta komunikatzeko.

Aurkezpena

Ekimen hau Hegoa Institutuko hezkuntza taldeak antolatu du, Hego Kolonbiako Unibertsitatearen (USCO) eta Cauca Unibertsitatearen (UNICAUCA) lankidetzarekin. Ekimenaren xedea da gizarte-eraldaketarekin konprometitutako unibertsitate baten inguruko eztabaida eta eraikuntza kolektiborako espazio parte-hartzaileak sortzea.

Hezkuntza kritiko eta emantzipatzaileztat hartzen dugu izaera hezitzaileko sozializazio kritiko zabala sustatzeko xedea duen hezkuntza. Horren bidez, alde batetik, tokiko eta nazioarteko testuingurua bere konplexutasun guztiarekin ulertzeko beharrezko jakintza bultzatuko da, eta bestetik, gizarte-aldaketarako ezagutza erabilgarria sortuko da, pertsona eta komunitate guztien eskubideak indartu eta emantzipazioarekin lotutako interesei erantzuteko irakurketa etiko eta eraldatzaileetatik abiatuta.

Egungo pandemia krisi sistemikoarekin elkarlotua dago, eta eragin handia du unibertsitatean ere. Horrenbestez, eztabaida bat mahaigaineratu behar da unibertsitateak gizarte-menderakuntza eta -eraldaketarako prozesuetan duen zereginari buruz, baita unibertsitateak sortutako ezagutza motarekin eta asetzen dituen interesekin duen harremanari buruz.

Enpresarekiko harremanak gero eta gehiago baldintzatzen du unibertsitateak sortutako ezagutza –globalizazio neoliberalaren testuinguruan—. Hori jakinda, ñabartu behar dugu azken hamarkadetan gizarte-aldaketarako beste ezagutza erabilgarri mota bat sortu eta aitortzera bideratutako mugimendu batzuk ari direla sortzen pixkanaka, eta horiek gai dira Covid-19 gaixotasunak eta emantzipazio-interesek ekarritako desafioei erantzuteko.

Azken interes horretatik abiatuta, Gradu Amaierako Lanekin eta Master Amaierako Lanekin (GAL/MAL) arazo sozialei erantzuteko ezagutza kritiko bat sortu eta hedatzeko xedea duen programa hau egitea planteatzen dugu.

Funtsean gradu eta graduondoko ikasleei zuzendutako jarduera den arren, unibertsitateko irakasleei, GGKE erakundeei eta gizarte-kolektiboei ere zuzendua dago, hots, hezkuntza kritiko emantzipatzailearen esanahira hurbildu eta GAL/MAL lanetan proposamen hori hedatu nahi dutenentzat.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza

Universidad
del Cauca

Helburuak

- › Euskadi eta Kolonbiako subjektu ezberdinen artean (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak) topaketa, elkarriketa eta gogoetarako espazio bat bultzatzea, errealitatea kritikoki ulertzeko, arazoen ebazpenean parte hartzeko eta ikerketa-jarduna beste mundu posible batzuen ekarpenarekin lotzeko.
- › Ikasleen GAL/MAL lanetan hezkuntza kritikoaren ikuspuntua ziurtatzeko jarraibide pedagogiko eta metodologiak eraikitzea elkarren artean.
- › Irakasleen rolari buruzko gogoeta sortzea, beren laneko eta biziko testuinguruarekin eta, horrenbestez, beren ezagutza sortzeko testuinguruarekin lotuta. Gizarte-aldaketarako, ezagutza esanguratsua sortzeak nolako garrantzia duen aztertzea.
- › Beste lurralde batzuetako ikasle eta irakasleen esperientzia eta interesak aitortzea, eta beste begirada eta erreferente epistemologikoetarako jarrera irekia izatea.

Lan-metodologia

Metodologia praktikoa da nagusiki, eta edukien inguruko prestakuntzara eta horiek baitaratzera zein elkarren arteko irtenbideak bilatzeko gogoetara dago bideratua. Lantaldeak osatuko ditugu, GAL/MAL lanen proposamen bakoitza modu pertsonalizatuan jorratzeko eta prozesua elkarriketaren bidez eta elkarren artean eraikitzeko.

Bertaratze-ziurtagiria

Parte-hartzaile guztiei bertaratze-ziurtagiria emango zaie (ikasleak, irakasleak eta gizarte-eragileak), nahasitako hiru erakundeek sinatuta: EHUKo Hegoa Institutua, USCO eta UNICAUCA.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza

Universidad
del CaucaUNIVERSIDAD
SURCOLOMBIANA



LEKUA: Zubiria Etxea Eraikina, Gradu Aretoa (Sarrikoko Campusa, EHU)

1. MINTEGIA

Data: **2022/03/04**

Iraupena: **15:00-19:00**

15:00. Ongietorria, prozesuaren eta programaren aurkezpena

Aurkezpen kolektiboa: izate eta jakintzen kartografia (Iris Murillo)

15:30. **Zergatik behar dugu ikerketa kritiko bat?** (Amaia del Rio)

15:45. **Ikerketa kritikoaren funtsezko zenbait oinarri**

- › “Hezkuntza Emantzipatzaile” ikuspuntutik ikertzea (Gema Celorio)
- › Teoria kritikoen paradigma (Juanjo Celorio)
- › Hegoaldearen epistemologia eta pentsamendu dekoloniala (Robinson Piñeros)
- › Epistemologia feministak eta feminismo dekoloniala (Diana Granados)
- › Epistemologia ekosozial eta komunitarioak (Julio R. Jaime)
- › Ikerketa-Ekintza-Partaidetza (Axel Rojas)
- › Hezkuntza herrikoia eta kulturarteko hezkuntza (Marcos Yule)

16:45. Atsedena

17:15. **Eztabaida. Gure testuinguru eta erresistentzietatik: ikerketa kritikoaren inguruko adostasun eta desadostasunak**

18:40. *GAL/MAL lanetarako proposamena* izeneko ikasleentzako 1. fitxaren eta irakasle eta gizarte-kolektiboentzako fitxaren aurkezpena

Hurrengo pausoak

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



UNIVERSIDAD
SURCOLOMBIANA





LEKUA: Basoko Etxea, Ganbara Aretoa (Sarrikoko Campusa, EHU)

2. MINTEGIA

Data: 2022/03/10

Iraupena: 10:00-14:00

10:00. Saioaren aurkezpena

Ikasleentzako 1. fitxaren aurkezpena. GAL/LAN proposamenak

Iradokizunak eta ekarpenak

12:20. Atsedena

12:40. **Esperientzia adierazgarriak ikerketa kritikoaren eta bizitzarekin konprometitutako unibertsitate baten ekarpenaren inguruan**

- › Bidez-bide Gizarte Sustapenerako Kultur Arteko Elkarte (Soraya Ronquillo eta Katia Reimberg)
- › Mugarik Gabeko Ingenieritza/Ingeniería Sin Fronteras (Pepe Ruiz)
- › Emaús Fundazioa (Alberto Gaston eta Julian Marquez)

13:45. **2. fitxaren aurkezpena - Loturak hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekin**

Hurrengo pausoak

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



UNIVERSIDAD
SURCOLOMBIANA





LEKUA: Basoko Etxea, Ganbara Aretoa (Sarrikoko Campusa, EHU)

3. MINTEGIA

Data: 2022/03/17

Iraupena: 10:00-14:00

10:00. Saioaren aurkezpena

Lanketa 2. fitxarekin - Loturak hezkuntza emantzipatzailearen printzipioekin

- > Banakako lanketa
- > Talde txikitan egiteko lanketa

12:00. Atsedena

12:30. Bateratu eta ekarpenak egitea

13:15. Irakasle eta gizarte-kolektiboentzako fitxatik ateratako gogoeta eta ekarpenen aurkezpena

Hurrengo pausoak

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



UNIVERSIDAD
SURCOLOMBIANA





LEKUA: Basoko Etxea, Ganbara Aretoa (Sarrikoko Campusa, EHU)

4. MINTEGIA

Data: **2022/03/24**

Iraupena: **10:00-14:00**

10:00. Ongietorria eta saioaren aurkezpena

3. fitxaren aurkezpena - GAL/MAL lan baten oinarrizko egitura orientagarria

10:20. 3. fitxarekin egiteko lanketa. Zein neurritan erantzuten die nire ikerlanak fitxan planteatutako orientazioei?

- > Banakako lanketa
- > Talde txikitan egiteko lanketa
- > Bateratu eta ekarpenak egitea

12:15. Atsedena

12:45. **Jardun pedagogiko horren inguruan gogoeta egiten¹**

Esker onak

¹ Elkarren arteko gogoetarako espazioa, proiektua sistematizatzeko aldera. Mintegien prozesua aztertuko dugu guztion artean, balorazioak egin eta jardun hau unibertsitatearen kulturaren gaineratzeari begirako erronkak identifikatzeko.

Babeslea /Financia



Antolatzaileak/Organiza



Universidad
del Cauca



UNIVERSIDAD
SURCOLOMBIANA



Hastapen elkarriketan parte hartzen dute...

Axel Rojas	Antropologia Departamentuko irakasle titularra, UNICAUCA unibertsitatearekin lotuta duela hogeit hamar urte baino gehiagotik. Universidad del Valleko soziologoa eta maisua Universidad Javerianako Ikerketa Kulturaletan. Hezkuntza kulturazintzuan aditua.
Diana Granados	Irakasle da UNICAUCA unibertsitatean eta emakumeen eskubideei, kulturarteko hezkuntzari eta herri indigenen eskubideei buruzko ikertzailea. Bake eta kultura politikako gaiak jorratzen ditu eta Etnografiako Tailerreko Ikerketa Haztegiko kide da.
Gema Celorio	Hegoa Institutuko hezkuntza teknikaria. Garapenerako Hezkuntzako lehen lau kongresuetako antolaketaren arduradun eta V. kongresuko antolaketako kidea. Hezkuntza kritikoari buruzko artikulu eta argitalpen ugari egile.
Juanjo Celorio	EHUko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle erretiratu. Kulturarteko Hezkuntza eta Gizarte Bitartekaritzan graduondoko irakaslea (EHU). Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko artikulu eta argitalpenen egile eta egilekidea.
Julio R. Jaime	USCO unibertsitateko irakasle elkartua, doktore hautagaia Gizarte Zientzietan, Granadako Unibertsitateko Bake eta Gatazken kudeaketan aditua, In-SUR-Gentes ikerketa taldeko zuzendaria. Egun USCO unibertsitateko ikasketa errektoreordea da.
Marcos Yule	Cecidic Komunitatearen Garapen Integralerako Hezkuntza, Gaikuntza eta Ikerketa Zentroko koordinatzailea. Ye 'ctey Neehnwe' sx, Toribioko Babesleku Indigenakoa, Cauca.
Robinson Piñeros	Soziologoa, Gizarte Zientzietan lizentziaduna, maisua Hezkuntzara bideratutako Gizarte Zientzietan (FLACSO, Argentina) eta Doktorea Geografian (UNESP, Brasil). USCO unibertsitateko irakasle eta ikerlaria.
Amaia del Rio	Hegoa Institutuko hezkuntza teknikaria 2000. urteaz geroztik. Feminismoarekin lotutako hezkuntza-proiektu ezberdinen arduraduna. Hezkuntza, genero eta feminismoei buruzko aholkularitza- eta ikerketa-lanak egin ditu.

Babeslea /Financia

Antolatzaileak/Organiza

